

HERRI ORTUEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

ZIOEN AZALPENA

Proiektatutako herri ortuek herritarren eskura dagoen eskaintza pedagogiko eta ekologiko gisa ezartzen dira, herritarrei lurra landatu eta bertatik kontsumo pertsonalerako fruituak eskuratzeko espazio publikoa edukitzeko aukera emateko edo horiek honetara hurbiltzeko. Herri ortuak baztertutako sektore sozialen gizarteratzea zein integrazio pertsonala ahalbidetzen duen aisia eta ongizateko ordezkotako aukera bat bezala proiektaturik daude. Herritarrei oro har zabaldutako jarduera da, baina gizartean premia gehien duten taldeei ematea lehenesten da.

Baseri eta herriaren arteko lotura da, naturarekiko begirunea irakatsi, natur aberastasunaren handitasuna baloratu, gure kulturak bere baitan hartzen gaituen lurrarekiko duen sustraitzea nolabait itzultzearen aldeko apustua da.

Natura errespetatu, honetatik baratzezaintza ekologikoak eta natur ingurunearekiko begirunean oinarritutako forma ekologiko batez honetatik fruituak lortzeko modu bat. Kaleko herritarrari baserriaren mundu honetaz dohainik gozarazteko aisiako eskaintza ekologiko eta pedagogikoaren bidez hurbiltzeko modu bat.

ORDENANZA REGULADORA DEL USO DE HUERTAS MUNICIPALES

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Las huertas municipales proyectadas se establecen como una oferta pedagógica y ecológica a disposición de los ciudadanos que acerque o permita a la persona ciudadana a disponer de un espacio público donde cultivar la tierra y obtener los frutos de la misma para consumo personal. Las huertas municipales se proyectan como una alternativa de ocio y de bienestar que permita la integración social como personal de sectores sociales excluidos. Se trata de una actividad abierta al ciudadano en general pero que prioriza la concesión a los grupos más necesitados de la sociedad.

Se trata de un nexo de unión del caserío y el pueblo, una apuesta por inculcar el respeto por la naturaleza, valorar la grandeza de la riqueza natural, devolver de alguna manera el arraigo de nuestra cultura a la tierra que nos alberga.

Una forma de respetar la naturaleza, obtener frutos de ella de una forma ecológica basada en la horticultura ecológica y en el respeto al medio natural. Una forma de acercar a la persona al mundo del caserío mediante una oferta de ocio ecológica y pedagógica para el disfrute de la misma de forma gratuita.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA:

Ordenantza honen xedea da aisiako herri ortuen emakida eta erabilera zuzendu behar dituzten xedapenak ezartzea, eta bere xedapenek herri ortuen erabiltzaileak zein Berrizko Udala behartzen dituzte.

2. ARTIKULUA. APLIKAZIO-EREMUA

Ordenantza Berrizko Udalaren jabetza edota errentamendu-erregimeneko lur guztiei aplikatzen zaie, baldin eta nekazaritzako erabilera badute, eta udalerriko baratzeen gunearen barruan bildutako zuzkidura erantsiei eta hauen osagarriei.

3. ARTIKULUA. ESKUMENAK ETA ZAINITZA

1. Berrizko Udalari, sustatzaile gisa, dagokio ordenantza honek ukitutako udal-jabetzako lurren erabilera zuzena zaintzeko eginkizun teknikoa eta zehatzeko eginkizuna gauzatzea.
2. Eginkizun teknikoak baratzeak antolatzeko proiektuak egin edota onartzea bere baitan hartuko ditu, baita hauek, eta hauei lotutako azpiegiturak, oro har, zaindu, konpondu eta mantentzea ere.

CAPITULO I: DISPOSICIONES GENERALES

ARTICULO 1º OBJETO:

La presente Ordenanza tiene como objeto el establecimiento de las disposiciones que han de regir la concesión y el uso de las huertas municipales, y sus disposiciones obligan tanto a las personas usuarias de las huertas como al Ayuntamiento de Berriz.

ARTICULO 2º AMBITO DE APLICACIÓN

La Ordenanza se aplica a todos aquellos terrenos propiedad y/o en régimen de arrendamiento del Ayuntamiento de Berriz, que estén sometidos a uso agrícola y dotaciones anexas y complementarias de las mismas aunadas dentro del complejo de huertas del municipio.

ARTICULO 3º COMPETENCIAS Y VIGILANCIA

1. Corresponde al Ayuntamiento de Berriz como promotor el ejercicio de las funciones técnicas, de vigilancia y sancionador del correcto uso de los terrenos de propiedad municipal afectados por la presente ordenanza.
2. La función técnica incluirá la elaboración y/o aprobación de proyectos de ordenación de huertas, así como de la conservación, reparación y mantenimiento de éstas, y de las infraestructuras ligadas a las mismas de carácter general.

3. Instalazioen kontserbazioa, konponketa eta mantentzea eta hauen erabilera zuzena egunerokoan erabiltzaileek beraiek zainduko dute, eta bere erantzukizuna izango da instalazioen erabilera zuzena eta baratzek eta hauei lotutako azpiegiturak zaindu, konpondu eta mantentzea hauen gaineko erabilera ez-egokia eginez gero.
4. Udaltzaingoak edo Udalak horretarako izendatu edo finkatzen duen beste edozein baliabideren bidez, araudia betetzen dutela zainduko du, eta bere egiteko nagusia izango da lurzatiak eta hauei lotutako azpiegiturak zuzen erabiltzen eta aprobetxatzen dituztela ikuskatzea.
5. Zaintzeaz arduratzen diren langileek egiten dituzten arau-hauste guztien gaineko salaketak aurkeztu ahal izango dituzte, arau-hausleak, ezagunak izanez gero, eta arau-hausteari dagozkion datuak identifikatuta.
6. Gainera, erabiltzaileek beraiek instalazioak zuzen erabiltzea zainduko dute.
7. Erabiltzaileak beraiek egindako ekintzen zuzeneko arduradunak izango dira, eta Udalak hauengana joko du egokitzat hartzen duen edozein urraketa, ekintza... jakinarazteko.
3. La conservación, reparación y mantenimiento de las instalaciones y del correcto uso de la misma será vigilada en el día a día por las propias personas usuarias siendo responsabilidad suya el correcto uso de las instalaciones y la conservación, reparación y mantenimiento de las huertas y las infraestructuras ligadas a las mismas en caso de un uso no adecuado de las mismas.
4. La vigilancia del cumplimiento de la normativa se efectuará por la policía municipal, o por cualquier otro medio que el Ayuntamiento designe o establezca al efecto, y su principal cometido será la inspección del correcto uso y aprovechamiento de las parcelas y las infraestructuras ligadas a ellas.
5. El personal encargado de la vigilancia podrá formular denuncias de cuantas infracciones se cometan, identificando a los infractores si fueren conocidos y los datos relativos a la infracción.
6. Además, las propias personas usuarias velarán por el correcto uso de las instalaciones.
7. las propias personas usuarias serán responsables directos de las acciones realizadas, dirigiéndose el Ayuntamiento a ellos para notificar cualquier incumplimiento, acción... considerada oportuna.

II. KAPITULUA. BARATZEEN EREMU **ANTOLATUETAN ERABILTZEKO BAIMENEN** **ERREGULAZIOA**

4. ARTIKULUA. ERABILERA BALDINTZAK

Ortua laborantzarako erabiltzeko baimenak ez dakar inola ere lurraren jabetza eskualdatzea; izan ere, jabetzaren titularraren izango da beti.

Erabilera baimena pertsonala eta besterenezina da, eta bakarrik sortuko ditu ondorioak, hori emateko ezarri diren baldintzak betetzen diren bitartean.

Erabiltzaileak ezin izango ditu inola ere laga, kargatu edo kostu bidez edo doan erabili erabileratik ondorioztatzen diren eskubideak. Era berean, eskubide horiek ezin izango zaizkie hirugarrenei eskualdatu inola ere.

5. ARTIKULUA. ERABILERA ANTOLATUTAKO EREMUETAN

1. Baratzeen erabiltzaileak beraiek baratzeari datzekion instalazioak, bai eta eremuko erabiltzaile guztien erabilerarako direnak ere mantendu eta zaintzeaz arduratuko dira.
2. Baratzea emateko momentuan berari datzekiolarako beharrezko instalazioak zein diren zehaztuko dira, hauek baja gertatzeko momentuan, edozein kausagatik, egoera

CAPITULO II REGULACION DE LAS **AUTORIZACIONES PARA USO EN ZONAS** **ORDENADAS DE HUERTAS**

ARTICULO 4º CONDICIONES DE USO

La autorización del uso del huerto para su cultivo no supone en ningún caso la transmisión de la propiedad del terreno, que seguirá siendo siempre del propietario titular.

La autorización de uso es personal e intransferible y sólo producirá efectos mientras concurren las condiciones establecidas para su concesión.

La persona usuaria en ningún caso podrá ceder, gravar o disponer a título oneroso o gratuito los derechos que se deriven de la utilización de uso. Dichos derechos no podrán ser en ningún caso objeto de transmisión a terceros.

ARTICULO 5º USO EN ZONAS ORDENADAS

1. Las propias personas usuarias de las huertas serán responsables del mantenimiento y cuidado de las instalaciones inherentes a la huerta, así como de aquellas que sean de uso común para los usuarios de la zona.
2. En el momento de entrega de la huerta se determinarán las instalaciones que hayan de ser consideradas inherentes a la misma, a fin de garantizar que las mismas se hallen en

zuzenean egotea bermatzeko, eta erabiltzaile zaharra instalazioen elementuen faltaren erantzulea izango da, baita hauen gainean egon litezkeen kalteen gaineko erantzulea ere. Honi dagokionez, Udalak, baratzea eman baino lehenago, erabiltzean gerta litezkeen aipatutako kalte horien gainean erantzuteko fidantza bat aurkezteko eskatu ahal izango du. Aipatutako fidantza hau ez da itzuliko honen gaineko aldeko udal-txostena eskuratu arte.

3. Ez da inolaz ere baimenduta egongo ezein animalia lurzatian erabiltzea.
4. Ez dago baimenduta paisaia narriatzen duten edo dauden instalazioak aldatzen dituzten elementuak ezartzea, hala nola bidoiak, gordailu osagarriak, txapak, banagailuak edo antzekoak, nekazaritza ekologikoaren araudian jasotako kasuetan eta udalaren baimena eskuratu ondoren izan ezik.

6. ARTIKULUA. INSTALAZIO KOMUNEN ERABILERA ETA MANTENTZEA EREMU ANTOLATUETAN

1. Jardueraren arduradunak eremu komunak, instalazio komunak, zerbitzuak, aldagelak, eta abar, eta guztien materiala (hala nola urasken ura, ongarriak, erremintak, makinak ...) erabiltzeko ezartzen dituzten arauak bete beharko dituzte. Horrela bada, jardueraren arduradunari hauek erabiltzeko baimena eskatu beharko diote.

perfecto estado en el momento de producirse la baja, por cualquier causa, siendo el antiguo usuario responsable de la falta de elementos de las instalaciones, así como, de los daños y/o perjuicios que pudieran existir sobre los mismos. A este respecto, el Ayuntamiento podrá exigir, previa a la concesión de la huerta, la constitución de una fianza que responderá de tales posibles daños durante su uso, y que no será devuelta hasta que se disponga de un informe municipal favorable al respecto.

3. En ningún momento se permitirá el uso de animal alguno en la parcela.
4. No está permitido la instalación de elementos que deterioren el paisaje, ó que alteren las instalaciones existentes, tales como bidones, depósitos complementarios, chapas, separadores, ó similares, excepto en los casos recogidos en el establecimiento de agricultura ecológica, y bajo autorización municipal.

ARTICULO 6º USO Y MANTENIMIENTO DE LAS INSTALACIONES COMUNES EN ZONAS ORDENADAS.

1. Se deberán cumplir las reglas que los responsables de la actividad establezcan para el uso de las zonas comunes, instalaciones comunes, servicios, vestuarios, etc. y del material común, tal como, el agua de las albercas, los abonos, las herramientas, maquinaria... debiendo solicitarse su uso al responsable de la actividad.

2. Debe katuta gelditzen da instalazioetatik kanpoko motordun makinak erabiltzea, eta jardueraren arduradunari txanda eskatu beharko diote guztien makinak erabili ahal izateko. Arduradunak, berriz, makina hauek erabiltzeko eguna eta ordutegia ezarriko ditu.
3. Baratzeen erabiltzaileak beraiek instalazioen mantentze eta eraginkortasun, apainketa eta segurtasuneko egoera zuzenaren arduradunak izango dira modu solidarioan.
4. Bere betebeharrak betetzen ez dituen baratzeen erabiltzaileari baratzeen erabiltzaile gisako baja egingo zaio.
5. Instalazio guztien barruan (baratzeak, banatzeko bideak, zerbitzu-eremua,...etab.) ibilgailuak aparkatzea debekaturik egongo da, hauetatik kanpo horretara zuzendutako eremuan izan ezik.
6. Banatzeko bideetatik, edo baratzeetan sartzeko barruko bideetatik, motordun ibilgailu arinak bakarrik ibili ahal izango dira (< 2 tn), salbuespenez Udalak zama lanak egiteko espresuki emandako baimena eskuratu ondoren.
7. Udalak erabiltzaileen eskuragarri dagoen motokultorea edukiko du eta bere erabilera doakoa izango da. Baratzeen arduradunari motokultorea erabiltzeko baimena eskatu beharko diote eta honek dagokion eguna eta ordua ezarriko ditu, bere erabilgarritasunarekin bat etorritik.
2. Queda prohibido el uso de maquinaria a motor externa a las instalaciones, debiendo de solicitar vez para hacer uso de la maquinaria común al responsable de la actividad quien establecerá el día y horario de uso de la misma.
3. Las propias personas usuarias de las huertas serán responsables de forma solidaria del mantenimiento y correcto estado de operatividad, decoro y seguridad de las instalaciones.
4. Aquella persona usuaria de huertas que no cumpla con sus obligaciones podrá ser dado de baja como usuario de las huertas.
5. Se prohíbe el estacionamiento de vehículos dentro de todas las instalaciones (huertas, caminos de reparto, zona de servicios, etc...), excepto en el espacio destinado para ello fuera de las mismas.
6. Por los caminos de reparto, o internos de acceso a las huertas, sólo podrán transitar vehículos ligeros a motor (< 2 tn), excepcionalmente y bajo autorización expresa del Ayuntamiento para realizar operaciones de carga y descarga.
7. El municipio dispondrá de un motocultor a disposición de las propias personas usuarias cuyo uso será gratuito. Se deberá de solicitar el uso del mismo al responsable de las huertas, estableciendo el mismo el día y hora correspondiente, de acuerdo a la disponibilidad de la misma.

8. Tutorea instalazio guztien mantentzea kontrolatzeaz arduratuko da.
9. Barrutian egotea: Erabiltzaileek akreditazioa eramán beharko dute. Nolanahi ere, ortu bakoitzean hiru pertsona (ortuaren erabiltzailea barne) egongo dira gehienez, baldin eta ortuaren titularrak aurretik identifikatu baditu.

Udalak egokitzat jotzen duenean, eta, edozelan ere, urtean behin, aipatutako instalazioak berrikusiko dira, eta eremuaren erabiltzaileei eskatuko die egon litezkeen kalteak edo akatsak konpondu edo zuzentzeko. Udalak erabiltzaile bakoitzak banaka aurkeztutako fidantza erabili ahal izango du aipatutako kalteak edo akatsak konpontzeko, betiere erabiltzaileek beraiek Udalak horretarako ezarritako epearen barruan konpontzen ez badituzte.

7. ARTIKULUA. AISIALDI-ORTUEN IREKIERA ETA ITXIERA ORDUAK

Erabiltzaileek ezarri diren irekiera eta itxiera ordutegiak bete beharko dituzte

8. El tutor se responsabilizará del control del mantenimiento de todas las instalaciones.
9. Permanencia en el recinto: Los usuarios/as deberán llevar la oportuna acreditación, permitiéndose en todo caso la presencia en cada huerto (incluido el usuario/a del huerto) de un máximo de tres personas y siempre que estén previamente identificadas por el titular del huerto.

Cuando el Ayuntamiento lo estime oportuno, y en todo caso anualmente, se procederá a la revisión del estado de tales instalaciones, requiriendo a los usuarios de la zona el arreglo o acondicionamiento de los daños o desperfectos que pudieran existir. La fianza depositada de forma individual por cada usuario, podrá ser utilizada por el Ayuntamiento para la reparación de tales daños o desperfectos, si no son reparados o subsanados por los propios usuarios en el plazo establecido para ello por el Ayuntamiento.

ARTICULO 7º. HORARIOS DE APERTURA Y CIERRE DE LOS HUERTOS DE OCIO

Las propias personas usuarias deben atenerse a los horarios que se establezcan para la apertura y el cierre

8. ARTIKULUA. URA UREZTATZEKO ERABILTZEA

1. Ureztatzeko ura instalazioetan banatuta dauden urasketatik eskuratu beharko dute.
2. Lehendik dagoen ur-hartunearen instalazioa ezin izango da aldatu Udalaren baimenik eduki gabe, eta hau ez betetzeak baja ekarriko du.
3. Ezin izango da putzurik ireki, ezta kanpoko bilketarik egin ere, Udalaren baimena eskuratu gabe.

9. ARTIKULUA. BARATZEZAINZA EKOLOGIKOA

1. Instalazio guztien sistemaren funtzionamendua laborantza ekologikoko irizpideetan bakarrik oinarrituko da.
2. Udalak baratze edo loreko laborantza ekologikoa erabiltzeko beharrezkoak diren baliabide materialak ezarri eta emango ditu.
3. Baratzeen erabiltzaile guztiek zentzu horretan Udalak ezartzen dituen balizko baldintzak bete beharko dituzte, hala nola zuhaixkako espezie jakin batzuk landatzea edo kultura edo pedagogiako lan jakin batzuk egitea, medeagarriak, ongarri naturalak gehitzea, herbizida, produktu fitosanitarioak, eta abar

ARTICULO 8º. USO DEL AGUA PARA RIEGO

1. El agua para riego deberá de obtenerse de los diversos abrevaderos repartidos en las instalaciones.
2. No se podrá proceder a la alteración, manipulación o modificación de la instalación de toma de agua existente sin autorización municipal, siendo, su incumplimiento, motivo de baja.
3. No se podrá proceder a la apertura de pozos, ni a la realización de captaciones externas, sin la autorización municipal.

ARTICULO 9º. HORTICULTURA ECOLÓGICA

1. El funcionamiento del sistema del total de las instalaciones se basará exclusivamente en criterios de cultivo ecológico.
2. El Ayuntamiento establecerá y dispensará los medios materiales necesarios para el uso cultivo hortícola o floral ecológico.
3. Todas las personas usuarias de las huertas deberán cumplir posibles condiciones que en este sentido establezca el Ayuntamiento, como la plantación de especies arbustivas determinadas, o la realización de ciertas labores culturales y pedagógicas, adición de enmiendas, abonos naturales, prohibición del

erabiltzeko debekua (baratzezaintza ekologikoan baimenduta daudenak izan ezik)

uso de herbicidas, productos fitosanitarios, etc. (excepto los permitidos en la horticultura ecológica).

4. Espresuki debekatuta gelditzen da jardueraren arduradunek eman gabeko pestizidak, ongarri, eta abar erabiltzea.

4. Queda expresamente prohibido el uso de pesticidas, abonos...no facilitados por los responsables de la actividad.

10. ARTIKULUA. HONDAKINEN TRATAMENDUA

ARTICULO 10º. TRATAMIENTO DE RESIDUOS

Esleipendunak sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatzeaz arduratuko dira, eta landare hondarren konpostajea gauzatuko dute finkaren barnean

Los adjudicatarios/as habrán de hacerse cargo de gestionar adecuadamente los desperdicios que se produzcan y habrán de compostar dentro de la finca los restos vegetales

11. ARTIKULUA. IKUSKAPENAK ANTOLATUTAKO EREMUETAN

ARTICULO 11º. INSPECCIONES EN LAS ZONAS ORDENADAS

Instalazio guztiak, banaka zein kolektiboki erabili beharrekoak, edonoiz horretarako izendatutako udal-langileen aldetik egindako ikuskapenaren mende daude, araudia zuzen betetzen dutela egiaztatzeko. Eta Udalak horretarako ahalmen zehatza edukiko du. Ildo beretik, erabiltzailea ezin izango da, inolaz ere, aipatutako ikuskapenaren aurka agertu.

Todas las instalaciones, tanto de uso individual, como colectivo, están sujetas a inspección por personal municipal designado al efecto en cualquier momento, a fin de comprobar el correcto cumplimiento de la normativa, quedando el Ayuntamiento expresamente facultado, para ello, sin que el usuario pueda oponerse en ningún caso

12. ARTIKULUA. EMAKIDA ETETEKO KAUSAK

ARTICULO 12º. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DE LA CONCESIÓN

Aurreko artikuluetan jasotako kasuak baztertu gabe, emakida eteteko kausa zehatzak, hurrengo hauek izango dira:

Sin perjuicio de los supuestos contemplados en los artículos precedentes, constituirán causas expresas de resolución de la concesión, las siguientes:

- | | |
|--|---|
| 1. Borondatezko baja, erabiltzaileak berak eskatuta. | 1. Baja voluntaria a petición de la propia persona usuaria. |
| 2. Zuzeneko salmenta egitea. | 2. Ejercer la venta directa. |
| 3. Erabiltzailearen heriotza edo baliaezintasuna. | 3. Fallecimiento o invalidez de la persona usuaria |
| 4. Aurkako ikuskapen-txostena edukitzea eta erabilera berritzeko epearen barruan ez eskatzea. | 4. Poseer informe de inspección desfavorable y no haber solicitado en plazo la renovación de uso. |
| 5. Emakidan zehar bi aldiz aurkako ikuskapen-txostena edukitzea. | 5. Poseer informe de inspección desfavorable por dos veces durante la concesión. |
| 6. Udalak zehazki eskatu ondoren, ezarritako epearen barruan, berritzeko eskabidea ez egitea. | 6. No realizar la solicitud de renovación, en el plazo establecido, tras su requerimiento específico municipal. |
| 7. Udalak erabili behar izatea udal-jarduketak gauzatzeko. | 7. Necesidad de uso por parte del Ayuntamiento para actuaciones municipales. |
| 8. Lurren erabilera hirugarren bati eskualdatu edo lagatzea Udalaren baimena eskuratu gabe. | 8. Transferencia o cesión del uso del terreno a un tercero sin autorización municipal. |
| 9. Udalak erabakitzen dituen udal-ikuskapenak egin ditzaten laguntzeari uko egitea. | 9. Negativa a colaborar en la realización de las inspecciones municipales que acordare el Ayuntamiento. |
| 10. Lehendik dagoen ureztapena aldatu edo manipulatzeko Udalaren baimena eskuratu gabe. | 10. Proceder a la alteración, manipulación o modificación de riego existente sin la autorización municipal. |
| 11. Baratzea justifikatu gabeko kausengatik (edo arduradunek nahikotzat jotzen ez dituzten argudioen bidez justifikatutako kausengatik) 2 hilabete baino gehiagoko epe batez abandonatzea. | 11. El abandono del huerto por causas injustificadas (o justificadas mediante argumentos que los responsables juzguen insuficientes) durante un periodo superior a 2 meses. |

12. Arau-hauste oso larria egitea edo garrantzi txikiagoko arau-haustek pilatzea ordenantza honen **IV. kapituluaren (Arau-haustek eta Zehapenak)** ezarritakoarekin bat etorritz.

13. Era berean, erabiltzaileek Ordenantza honetan ezarritako baldintza edota obligazioetako edozein ez betetzeak lagatuko lursailaren edukitza eta gozamenearan jarraitzeko eskubidea galtzea ekarriko du, eta Udalari ahalmena emango dio emandako erabileraren lagapena ezeztatzeko, ez-betetzeak ekar litzakeen zehapenak baztertu gabe.

III. KAPITULUA: ZERBITZU KOMUNEN ERABILERA ETA MANTENTZEA

13. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA

Erabiltzaileek beraiek aisiako baratzeen jarduerarekin lotutako zerbitzu komunaren eremuak garbitu, mantendu, ikuskatu eta kudeatzeko lanak egin beharko dituzte

14. ARTIKULUA. INSTALAZIO KOMUNEN GARBIKETA

Erabiltzaileak instalazio komunak garbitzeaz arduratu beharko dira.

12. Realización de una infracción muy grave o una acumulación de infracciones de menor índole se acuerdo a lo establecido en el **Capítulo IV Infracciones y Sanciones** de la presente ordenanza.

13. Del mismo modo, el incumplimiento de cualquiera de las condiciones y/u obligaciones establecidas en la presente Ordenanza, por parte de las propias personas usuarias, supondrá la pérdida de su derecho a continuar en la posesión y disfrute del terreno cedido, y facultará al Ayuntamiento para revocar la cesión de uso concedida sin perjuicio de las sanciones a que hubiere lugar.

CAPITULO III: USO Y MANTENIMIENTO DE SERVICIOS COMUNES

ARTICULO 13º. RESPONSABILIDAD

Las propias personas usuarias deberán de llevar a cabo las labores de limpieza, mantenimiento, supervisión y gestión de las zonas de servicios comunes vinculadas a la actividad de huertas de ocio

ARTICULO 14º. LIMPIEZA DE LAS INSTALACIONES COMUNES

Las propias personas usuarias deberán de hacerse cargo de la limpieza de las instalaciones comunes.

Hori horrela izanik ere, Udalak berau ikuskatzeko lanak egingo ditu, eta instalazio hauek garbitzeko egun eta orduen gaineko kontrola eskatuko du.

Udalak garbitzeko lanak betetzen ez dituztela iritziz gero, horren arabera jokatuko du eta erabiltzaileei eskatuko die berau gauzatzeko eta, beharrezkoa izanez gero, Udalari aurkeztutako abalak erabiliko ditu aipatutako kalteak edo akatsak konpontzeko, betiere erabiltzaileek beraiek horretarako Udalak finkatutako epearen barruan horiek konpondu edo zuzendu ezean.

IV. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

15. ARTIKULUA. ERANTZUKIZUNA

Araudi honetan aurreikusitakoa urratzen duten ekintza edo omisioek administrazioko erantzukizuna ekarriko dute, zigor-arloan, arlo zibilean edo egon litekeen beste ordena batean eska daitekeena alde batera utzi gabe.

16. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTE MOTAK

Administrazioko erantzukizunean eroriko dira artikulua honen hurrengo atal hauetan tipifikatuta dauden arau-hausteetako edozein egiten dutenak:

A pesar de ello, el ayuntamiento realizará las labores de supervisión de la misma, exigiendo un control de los días y horas de limpieza de las mismas.

En caso de considerar el ayuntamiento el incumplimiento de las labores de limpieza, actuará al respecto solicitando a las propias personas usuarias la ejecución de la misma y en su caso, utilizará los avales presentados al Ayuntamiento, para la reparación de tales daños o desperfectos, si no son reparados o subsanados por los propios usuarios en el plazo establecido para ello por el Ayuntamiento.

CAPITULO IV INFRACCIONES Y SANCIONES

ARTICULO 15º. RESPONSABILIDAD

Las acciones u omisiones que infrinjan lo prevenido en la presente Normativa generarán responsabilidad administrativa, sin perjuicio de la exigible en vía penal, civil o de otro orden en que puedan incurrir.

ARTICULO 16º. TIPOS DE INFRACCIONES

Incurrirán en responsabilidad administrativa quienes cometan cualquiera de las infracciones tipificadas en los apartados siguientes de este artículo:

A. –Honakoak arau-hauste arinak dira:

- Erabileraren baja jakinarazitakoan, baratzea erabiltzen jarraitzea.
- Auzotarra izateari uztea eta baja ez eskatzea.
- Bere baratzearen berezko instalazioak, baita bere sarbideak ere ez mantentzea.
- Baratzeak ez diren laborantzak egitea edo baimendu gabeko tokietan landareak landatu edota mantentzea, esate baterako fruta-arbolak, zuhaixkak, etab.
- Baratzearen itxitura egitea Udalaren baimena eskuratu gabe edota baimendu gabeko elementuak erabiliz.
- Baimendu gabeko tokietan ibilgailuak aparkatzea.
- Beste erabiltzaile batzuei, hauen baimena eskuratu gabe, ureztatzeko ura edo ondasunak kentzea.
- Ureztatzeko uraren kanpoko bilketak egitea Udalaren baimena eskuratu gabe.
- Udalak baratzezaintza ekologikoko praktikak gauzatzeko ezarritako eskakizunak ez betetzea.

A. –Son infracciones leves:

- La continuidad en el uso de la huerta, una vez notificada la baja de la misma.
- Dejar de ser vecino/a y no solicitar la baja.
- No proceder al mantenimiento de las instalaciones propias de su huerta, así como de sus accesos.
- Llevar a cabo cultivos no hortícolas, ó la plantación y/o mantenimiento de plantas en lugares no permitidos, como frutales, arbustos, etc.
- Efectuar el cierre de la huerta sin autorización municipal y/o con el uso de elementos no permitidos.
- Llevar a cabo el estacionamiento de vehículos en lugares no permitidos.
- Sustraer agua de riego o bienes a otros usuarios sin permiso de éstos.
- Realización de captaciones externas de agua para riego, sin autorización municipal.
- Incumplir los requisitos establecidos por el Ayuntamiento, para llevar a cabo prácticas de horticultura ecológica.

B.- Honakoak arau-hauste larriak dira:

- Baimendu gabeko elementuak ipintzea, hala nola txabolak, negutegiak, bidoiak, gordailuak, etab.
- Baratzeari datxezkion udal-ondasunak kaltetzea edo lapurtzea.
- Baratze bakoitzerako ezarritako mugak aldatzea.
- Animaliak ustiatu edo hazteko ekintzak egitea edo edukitzea.
- Ureztatzeko sarea eta bere instalazioak aldatu edo manipulatzeko Udalaren baimena eskuratu gabe.
- Baratzearen erabilera eskualdatu edo lagatzea, Udalaren baimena eskuratu gabe.
- Erabiltzaile bakoitzak baratze ludikoen instalazio guztien barruan dituen betebeharrak ez betetzea.
- Baimendutakoa baino pisu handiagoko ibilgailuekin ibiltzea.
- Udal-langileek baratzea eta bere instalazioak askatasunez ikuska ditzaten eragozteak.

B.- Son infracciones graves:

- Instalar elementos no permitidos, como chabolas, invernaderos, chapas, bidones, depósitos, etc.
- Dañar o sustraer los bienes municipales inherentes a la huerta.
- Alterar los límites establecidos para cada una de las huertas.
- Poseer, o realizar acciones de explotación o cría de animales.
- Alterar, manipular o modificar la red de riego y sus instalaciones sin autorización municipal.
- Transferir o ceder el uso de la huerta, sin autorización municipal.
- El incumplimiento por parte de cada persona usuaria con sus obligaciones dentro del conjunto de las instalaciones de los huertos lúdicos.
- Transitar con vehículos de un peso mayor al autorizado.
- Impedir la libre inspección de la huerta y sus instalaciones, por parte de personal municipal.

- Udal-ondasunak lapurtzea edo baratzeen instalazio komunetan kalteak eragitea, baldin eta bere balioa 500 euro baino handiagoa ez bada.
- Edozein arau-hauste arin errepikatzea.
- Sustraer bienes municipales o causar daños ó desperfectos en las instalaciones comunes de las huertas, cuyo valor no supere los 500 euros.
- La reiteración de cualquier infracción leve.

C.- Honakoak arau-hauste oso larriak dira:

- Legez kanpoko laborantzak edo landareak landatzeko lanak egin edo ezartzea.
- Jardueraren arduradunak ematen ez dituen ongarriak, pestizidak, eta abar erabiltzea.
- Udal-ondasunak lapurtzea edo kalteak eragitea baratzeen instalazio komunetan, baldin eta hauen balioa 500 euro baino handiagoa bada.
- Udalak emakida ezeztatzea erabakiz gero, lagatako lursaila, epearen barruan, ez hustu edo itzultzea.
- Edozein arau-hauste larri behin eta berriz egitea.

17. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK BEHIN ETA BERRIZ EGITEA

Arau-haustek behin eta berriz egitea zorrozki zigortuko da. Horrela bada, egindako arau-hausteen kopuru eta hauen tipologiaren eta hauek dakartzaten zehapenen arteko antzekotasunen taula ezarrita dago.

C.- Son infracciones muy graves:

- Establecimiento o realización de labores de cultivo de plantas o cultivos no legales.
- Uso de abonos, pesticidas,... no facilitados por el responsable de la actividad.
- Sustraer bienes municipales ó causar daños ó desperfectos en las instalaciones comunes de las huertas, cuyo valor supere los 500 euros.
- No restituir, ni desalojar, en plazo, el terreno cedido, caso de acordarse por el Ayuntamiento la revocación de la concesión.
- La reiteración de cualquier infracción grave.

ARTICULO 17º. REITERACIÓN INFRACTORA

La reiteración infractora será severamente castigada, estableciéndose el siguiente cuadro de semejanzas entre número de infracciones realizadas y tipología de las mismas con sanciones que acarrear las mismas

Arau-hauste kopurua eta tipologia Número de infracciones y tipología	Antzekotasuna Semejanza	Ezarritako zehapena Sanción impuesta
3 arin /3 leves	Larria / grave	150 €
2 larri= Larria+ 2 arin=5 arin 2 graves= Grave+ 2 leves=5 leves	oso larria muy grave	Kanporatzea + 500€ Expulsión + 500 €

Behin eta berriz egiteagatik ezarritako zehapenak pilagarriak izango dira, hau da, hirugarren arau-hauste arina egitean honengatik kargua ordaindu beharko dute (20-50 euro) behin eta berriz egiteagatik ezarritako 150 euroko zehapenaz gainera.

2 urtez arau-hausterik egin gabe egonez gero, erabiltzailea alde zuzenetik egindako arau-hausteetatik salbuetsita dagoela joko da, hau da, horren aurreko arau-hausteak ez dira kontuan hartuko.

18. ARTIKULUA. ZEHATZEKO PROZEDURA

1. Berrizko Udal-organoari dagokio zehatzeko prozedurak hasi, bideratu eta ebaztea.
2. Udaltzaingoak edo horretarako izendatutako zaindari-ikuskariak egiaztatutako gertaerek, salaketako dokumentuetan edo beharrezko legezko eskakizunak betez beste dokumentu publiko batean formalizatutakoek, frogako balioa edukiko dute administratuek beraiek dagozkien eskubideak edo interesak defendatzeko adierazi edo aurkez ditzaketen frogak alde batera utzi gabe.

Las sanciones impuestas por reiteración serán acumulables, es decir, al efectuarse la tercera infracción leve deberá de abonarse el cargo por la misma (20-50 €) además de la sanción impuesta por reiteración de 150€.

En el supuesto de mantenerse 2 años sin ninguna infracción, se considerará a la persona usuaria exenta de las infracciones cometidas con anterioridad, es decir, no se tendrán en cuenta infracciones anteriores a la misma.

ARTICULO 18º. PROCEDIMIENTO SANCIONADOR

1. Corresponde al órgano municipal de Berriz la iniciación, instrucción y resolución de los procedimientos sancionadores.
2. Los hechos constatados por la policía municipal, ó los vigilantes-inspectores designados al efecto, que se formalicen en los documentos de denuncia o en otro documento público observando los requisitos legales pertinentes, tendrán valor probatorio sin perjuicio de las pruebas que en defensa de los respectivos derechos o intereses puedan señalar ó aportar los propios administrados.

3. Arau-haustek delitu edo hutsegitea izan daitezkeen kasuetan, Administrazioak espedientea eskuduna den organo juridikzionalari igorriko dio eta zehatzeko prozedura jarraitzeari uko egingo dio, agintari judizialak ebazpena ematen ez duen bitartean. Agintaritza judizialaren zehapenak administrazioko isuna ezartzea baztertuko du.
4. Delitua edo hutsegitea dagoen baietsi ezean, Administrazioak zehatzeko espedientea jarraitu ahal izango du, eskudun juridikzioak frogatutzat jo dituen gertaeretan, egonez gero, oinarriturik.
3. En los supuestos en que las infracciones pudieran ser constitutivas de delito o falta, la Administración pasará el expediente al órgano jurisdiccional competente y se abstendrá de proseguir el procedimiento sancionador mientras la autoridad judicial no se haya pronunciado. La sanción de la autoridad judicial excluirá la imposición de multa administrativa.
4. De no haberse estimado la existencia de delito o falta, la Administración podrá continuar el expediente sancionador, con base, en su caso, en los hechos que la jurisdicción competente haya considerado probados.

19. ARTIKULUA. ISUNEN TAULA

Aurreko artikuluek aipatzen dituzten arau-haustek zigortuko dira sortutako kalteei kasu eginez, eta, horrelakorik egonez gero, sortutako arriskuari eta eragilearen xedeari begiratzuz, hurrengo isun hauen bitartez:

- Arau-hauste arinak: 20 eta 50 euro bitarteko isuna.
- Arau-hauste larriak: 51 eta 150 euro bitarteko isuna.
- Arau-hauste oso larriak: 151 eta 300 euro bitarteko isuna. Zuzeneko kanporatzeaz gainera (12. artikulua. Emakida eteteko kausak)

ARTICULO 19º. CUADRO DE MULTAS

Las infracciones a las que se refieren los artículos anteriores, serán sancionadas atendiendo a los daños y perjuicios producidos, así y en su caso, al riesgo creado y a la intencionalidad del causante, con las siguientes multas:

- Infracciones leves: multa de 20 a 50 €
- Infracciones graves: multa de 51 a 150 €
- Infracciones muy graves: multa de 151 a 300 €. Además de la expulsión directa (artículo 12 causas de resolución de la concesión)

Udalak adierazitako zehapen horiek eguneratu ahal izango ditu kontsumoko prezioen indizeen aldaketa kontuan harturik.

Gertaera berbera legeria espezifiko batean baino gehiagotan aurreikusita egonez gero, zenbateko handieneko zehatzeko xedapena aplikatuko da.

Zehapenen ezarpena arau-hausleak aldatutako egoera jatorrizko egoerara itzultzeko honi egin beharreko eskaerarekin bateragarria izango da, bai eta eragindako kalteengatik kalte-ordainarekin ere.

20. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEEN PRESKIPZIOA

Aurreko artikuluek aipatzen dituzten arau-hausteen preskripzio-epaia lau urtekoa izango da larri eta oso larrietarako, eta urtebetekoa arinetarako

21. ARTIKULUA. KALTEEN KALTE-ORDAINA

Udal-baratzeetan edo hauei erantsitako instalazioetan kalteak eragiten dituen pertsona orok kalte-ordaina eman beharko du, bidezkoak izan litezkeen zehapenak alde batera utzita.

Aipatutako toki edo instalazioetan eragindako kalteen zenbatekoa adieraztea Udalarri dagokio. Balorazioa edo balorazioak salatutakoari helaraziko zaizkio berea egin dezan edo egokitzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

El Ayuntamiento podrá proceder a la actualización de las sanciones señaladas teniendo en cuenta la variación de los índices de precios al consumo.

Si un mismo hecho estuviera previsto en más de una legislación específica se aplicará la disposición sancionadora de cuantía superior.

La imposición de sanciones será compatible con la exigencia al infractor de la reposición de la situación alterada por el mismo a su estado originario, así como con la indemnización por los daños y perjuicios causados.

ARTICULO 20º. PRESCRIPCIÓN DE INFRACCIONES

El plazo de prescripción de las infracciones a que se refieren los artículos anteriores será de cuatro años para las graves y muy graves, y de un año para las leves

ARTICULO 21º. INDEMNIZACIÓN DE DAÑOS Y PERJUICIOS

Toda persona que cause daños en las huertas municipales ó instalaciones anexas a las mismas deberá indemnizarlos con independencia de las sanciones que resultaren procedentes.

El señalamiento de la cuantía de los daños y perjuicios causados en tales lugares ó instalaciones corresponde al Ayuntamiento. La valoración o valoraciones serán trasladadas al denunciado para que realice la suya ó presente las alegaciones que

Eragindako kalteen adierazpena jasoko duen kalte-ordainaren erabakia zehatzeko espedienteari azkena ematen dion ebazpenean egingo da.

Kalteen kalte-ordaineko erabakiak exekutiboak izango dira legez finkatutako epeen barruan, eta errekurtoa aurkeztu izanak ez du bertan behera utziko aurka egindako egintzaren gauzapena, salbu eta, antolamendu juridikoarekin bat etorritz, organo eskudunak horrela agintzen badu.

Adierazitako kalte-ordaina ezarritako epearen barruan ordaindu ezean, Udalak premiamenduko bidez ordainaraziko du.

22. ARTIKULUA. KALTEAK KONPONTZEA PREMIA EGONEZ GERO

Segurtasun-arrazoiengatik edo eskudun udal-organoren ebazpenean behar bezala egiaztatutako beste edozeinengatik kalteak konpontzea atzeraezina den kasuetan, berehala jatorrizko egoerara itzuli ahal izango da eta dagokion zenbatekoa ondoren eskatuko zaio eragin duenari, aurreko artikuluek aipatzen duten zehatzeko espedientea hasi ondoren edo jurisdikzio arruntera jo ondoren

considere oportunas.

El acuerdo de indemnización que contendrá el señalamiento de los daños y perjuicios causados se realizará en la resolución que ponga fin al expediente sancionador.

Los acuerdos de indemnización de daños y perjuicios, serán ejecutivos en los plazos legalmente fijados, sin que la interposición del recurso suspenda la ejecución del acto impugnado, salvo que, conforme con el ordenamiento jurídico, así lo ordene el órgano competente.

En caso de impago de la indemnización señalada dentro del plazo establecido, el Ayuntamiento procederá a su exacción por la vía de apremio.

ARTICULO 22º. REPARACIÓN DE DAÑOS EN CASO DE URGENCIA

En los supuestos en los que, por motivos de seguridad o cualesquiera otros debidamente acreditados en resolución del órgano municipal competente, se haga inaplazable la reparación de daños y perjuicios, podrá procederse a su inmediata restitución y a la exigencia posterior del importe correspondiente al causante de los mismos, previa incoación del expediente sancionador a que se refieren los artículos precedentes ó acudiendo a la jurisdicción ordinaria.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Erabiltzaile bakoitzak Udal honen aurrean 100 euroko fidantza aurkeztu beharko du instalazioetan sor litezkeen kalteen gainean erantzuteko

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik eta bere testu osoa BAOn argitaratzen denetik aurrera hilabeteko epea bukatzen denean

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

Cada persona usuaria deberá presentar ante este Ayuntamiento una fianza de 100 € para responder de los desperfectos que se podrían originar en las instalaciones.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

La presente ordenanza entrará en vigor una vez que haya transcurrido el plazo de un mes desde la publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia de su aprobación definitiva y se haya publicado su texto completo en el B.O.B